



*Euskararen Jarraipena*  
*La Continuidad del Euskera*  
*La Continuité de la Langue Basque*

## AURKEZPENA

### HITZAURREA

1. ALDEZ AURRETIKO OHARRAK
2. EUSKAL HERRIARI BURUZKO OINARRI-OINARRIZKO ZENBAIT DATU
3. HIZKUNTZA GAITASUNA. EUSKARA VS. ERDARA <sup>1?</sup>
4. EUSKARAREN ERABILERA
5. EUSKARAREKIKO INTERESA ETA JARRERA
6. LABURPENA ETA ONDORIOAK

### ERASKINAK

### BIBLIOGRAFIA



## AURKEZPENA

Medikuntzan gaitzak sendatzeko diagnostiko egokia egitea beharrezko den bezala, gizarte alorreko gaietan ez dago soluziobideak era razionalean bilatzerik arazoek deskribapena eta zergatia alde aurretik ondo aztertu gabe. Euskal Herriko (E.H.) hizkuntza plangintzako eragileentzat eskarmentua, norberaren sena eta egoera soziolinguistikoaren ezagutza osatugabea -bai ikuspegi geografikoaren aldetik bai aztergaiaren osotasunaren aldetik- izan dira, oro har, oinarriko abiapuntuak. Hala ere, ez da makala izan urte hauetan euskararen alde egindako lana, informazio eta formazio mailako hutsuneak ilusio eta gogo handia jarriz gainditu baitira. Dena den, hizkuntza plangintzarako jarritako baliabideak areagotu diren heinean, gero eta ageriago gelditu da euskaldunok gure hizkuntzaren egoeraren argazki eta erradiografia osatu eta sakona izateko genuen premia. Behar horri erantzuteko burutu da, hain zuzen ere, liburu honen bidez aurkezten zaizun ikerketa.

Euskal Herri osoko azterketa soziolinguistikoaren berri estrainekoz ematen duen lan honek baditu aipagarriak diren hainbat ekarpen. Honela, zentsuko informazioa lehendik zegoenean -Euskal Autonomi Elkarteko eta Nafarroako Foru Elkarteko kasuan, esate baterako- ikerketak informazio hori balioztatu du. Zentsuko informaziorik ez zegoenean -Iparraldean- hutsune hori ikerketaren emaitzen bidez bete da. Euskal hiritarren hizkuntza gaitasunari buruz genekiena osatu da hemen eskaintzen den informazio osagarriarekin. Azkenik, hizkuntza jarreraz eta erabileraz ezezaguna zitzaigun informazio berri asko aurkitzeko parada izango du irakurleak liburu honetan.

Ikerketaren ondorioen artetik bi nabarmendu nahi nituzke oraingoan besteen gainetik. Batetik, euskararen aldeko hizkuntza politikarik dagoen tokietan euskara sendotu edota berreskuratzen ari den bitartean aurkakoa



gertatzen ari dela euskararen erabilera sustatzeko politikarik ez dagoen tokietan. Bestetik, askotan aurkakoa esan bada ere, euskaldunok gure hizkuntzari leialtasun handia diogula egiaztatu da, familiaren bidez euskararen belaunez belauneko jarraipenari eusteaz gain, euskaraz hitz egiten baitugu baldintza egokiak ditugunean.

Zinez uste dut Euskal Herriko azterketa soziolinguistiko hau oso tresna baliagarria eta eraginkorra izango zaigula datozen urteotako hizkuntza plangintzaren helburu eta lehentasunak zehazteko, hau da, J. A. Fishman irakasleak dioen bezala “erdietsi nahi diren funtzio berriei dagokienean zein era egokiagoan bete nahi diren aintzinako funtzioei dagokienean, ezarritako status eta corpus helburuak betetzeko beharrezko diren baliabideak finkatu ahal izateko”<sup>2</sup>.

Inoiz baino egoera hobean gaude horretarako.

M. Karmen Garmendia Lasa

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua



## HITZAURREA

Liburu honetan Euskal Herriko hiru lurraldeetan (Euskal Autonomi Elkartean, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian) egin den lehen soziolinguistikazko inkesta handiaren emaitza nagusiak eskaintzen dira eta bertan hizkuntzari buruzko galderak jasotzen dira: hizkuntza gaitasuna, hizkuntza erabilera eta hizkuntza jarrerak. Ikerketa honetan Pirinioen bi aldeetako 5.000 euskaldun eta erdaldun baino gehiagok parte hartu dute. Bestalde, inkesta hau soziolinguistika alorreko kontzeptu eta metodologiari buruzko planteamendu berrienen ildotik landu da; inkestaren helburuetako bat izan da jakitea zein diren euskararen ezagupenean eta erabileran eragina duten arrazoi nagusiak Euskal Herriko hiru lurraldeetan. Ikus daitekeen bezala, azterketa honetan lortu dira, orokorki, hasieran ezarritako helburu enpiriko eta kontzeptualak. Eskaintzen diren emaitzek egoeraren deskribapena egiten dute baina inolako ezbairik gabe emaitzok sakonkiago aztertuko dituzte aurrerago bai irakasle eta ikerlari adituek, baita Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiko arduradunek ere.

Inkesta honi esker euskaldunek soziolinguistikazko tresna dute eskuartean beraien hizkuntzek Euskal Herriko hiru lurraldeetan izandako atzerapen eta aurrerapenak hobeto aztertzeko. Argitarapen honen helburuetako bat da euskararen iraganari, orainari eta geroari buruzko gogoeta eragitea. Euskara euskal herritar guztien ondarearen zutabeetako bat da; beraz, inkesta honen emaitzei buruzko iruzkin eta oharrak egitera bultzatu beharko liriateke, Euskal Herri osoan, gizartearen alor guztietako talde nahiz norbanakoak. Argitarapen honek gainera, 1982an Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarrizko Legea onartu zenetik orain arte egindako aurrerapenak aztertzeko aukera eskaintzen dio Euskal Autonomi Elkarteari. Aldi berean, inkestaren emaitzen azterketa lagungarri eta bide erakusle izango da erakunde publikoek hurrengo hamar urteetan egin beharko duten hizkuntza politika



zehazteko. Bestetik, ez dago zalantzarik Euskal Herri osoan, etorkizunean, tankera honetako soziolinguistikazko inkesta errepikatzeak gaurko eta etorkizuneko hizkuntza politiken eragina neurtzen lagun dezakeela baita ere. Euskal Autonomi Elkartean euskarak lortutako arrakastak erakusten du beharrezkoa dela Euskal Herriko beste lurraldeetan ere euskararen aldeko antzeko neurriak hartzea. Oraindik ere balio du hiru lurraldeetako gutxiengo euskaldun eta euskaltzaleentzat Lacordaireren esaldi ospetsuak: “Entre le fort et le faible, c’est la liberté qui opprime et la loi qui affranchit” (indartsuaren eta ahularen artean askatasunak zapaldu egiten du eta legeak askatu).

Liburu honetan argitaratzen diren emaitzei esker lehenengo aldiz alderatu ahal izango dira euskararen bizitasuna eta bere hiztunena, Euskal Herriko hiru lurraldeetan. Gonbarazio hauek batzuentzat mingarriagoak izango dira besteentzat baino. Dena den argi dago lurralde bateko euskararen etorkizuna beste lurraldeetako etorkizunaren baitan egon daitekeela hein handi batean. Orain inoiz baino gehiago, elkartasuna da eta ez axolagabekeria euskara Euskal Herri osoan garatu eta hedatu ahal izateko giltzarria. Hori dela eta gogoan izan beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren argitasun eta diru baliabideei esker egin ahal izan dela soziolinguistikazko inkesta nabarmen hau.

Richard Y. Bourhis

Quebeceko Unibertsitatea, Montréal eta

Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia-San Sebastián

1994ko azaroa

◀<sup>1</sup> Aurrerantzean erdara hitza erabiliko da gaztelania eta frantsesa adierazteko.

◀<sup>2</sup> Fishman, Joshua A. “Reflections on the Current State of Language Planning”. *Actes du colloque international sur l'aménagement linguistique*. Université Laval, Ottawa, 1987.